

Bero-beroan

Soziolinguistika lantzeko filmak

GARAIGOIKOA izeneko blogean (www.blogak.com/garaigoikoa) irakurri dugu nola hasi den Pere Mayans soziolinguista katalana soziolinguistika lantzeko filmen zerrenda egiten bere blogean. Hiru film paratu ditu oraingoan, dagokien fitxa tekniko, laburpen, iruzkin, bereziki landu beharreko eszena eta bibliografiakin. Ikasleekin zein helduekin aritzeko moduko materiala dela dio Mayansek. Honakoak dira gomendatutako hiru filmak:

- ✓ *Windtalkers*. John Woo-ren filmak AEBetako nabajoen herriarekiko diskriminazioa agertzen du.
- ✓ *Rabbit Proof-fence (Belaunaldi galdua)*. Australian bertako hizkuntzek eta kulturek jasandako jazarpenari buruzkoa da Philip Noyce-ren filma.
- ✓ *The wind that shakes the barley (Gara-garra astintzen duen haijea)*. Irlandan kokatutako Ken Loachen film hone-

tan gaelikoaren aurkako errepresioa ageri da.

Garaigoikoa blogean erabiltzaile anonimoak beste bi proposamen egin ditu: *My Name Is Yu Ming* eta *Fluent Dysphasia*, biak Daniel O'Hara zuzendariarenak eta Irlandako gaelikoari buruzkoak.

Iruña-Veleia afera mugitzeko proposamena

ELISEO GIL ARKEOLOGOA Iruña-Veleiako aztarnategiko zuzendaria da eta Arabako Batzar Nagusietan egin duen agerraldian azaldu du, 2006ko azaroan antzinateko euskara azaldu zela publiko egin zenetik eta aurkitutakoa zalantzan jarri zenetik, aurkuntzak ontzat hartzeko edo errefusatzeko aurrerapausorik ez dela eman. Gilek proposatu du 2008an analitikak errepikatu eta berriak egitea, 2009aren hasieran ikerketen corpusa argitaratzea eta 2010ean kongresua antolatzea.

BAHEA

Jose Luis Aizpuruk *Le Journal du Pays Basquen* esanak: "Zergatik idatzi euskaraz, jakinik, jende guttiagorengana helduko dela zure ekoizpen mezua? Zergatik idatzi Iparretarrak taldeari buruzko liburua euskara hutsez, jakinik, frantsesez egin ezkerro, merkatu zabalago bat ukaiten ahalko zukeela idazleak. Zergatik ekoiztu antzerki bat euskara hutsez, jakinik, guretzat bakarrik dela. Eta zergatik euskara hutsezko komunikabideak, jakinik, frantsesaren itsaso zabalak, aintitez arrain gehiago dizkigula eskainiko gure bazkarako... Bistan dena, merkatu legeek ez dute uzten zalantza izpirik. Baina gure herri-erri honetan, merkatutik haruntzago badela beste zerbait gehiago ikasi dugu, edo uste nuen ikasia genuela".

Jon Mak Musika Armatu Komandoko kideak *Garan* esanak: "Egia da gaur egun gutxi garela euskaraz rapeatzen, baina ikusiko duzu, hamar urteren buruan, oroitu gara gara batez rock eta punk musika baizik ez zela egiten Euskal Herrian!".

Patxi Huarte 'Zaldi Eroa'k *Noticias de Gipuzkoan* esanak: "Behin galdetu zidaten ea komiki-firak gaztelaniaz egingo nituzkeen, eta nik baietz esan nuen. Orain arte euskaraz egin ditut istorioak, baina nire ama hizkuntza gaztelania da eta, agian, istorio hobek egingo nituzke gaztelaniaz, finagoak eta baliabide linguistiko gehiagorekin. Honek ez du esan nahi euskara motz gelditzen denik, baizik eta nire ama hizkuntza beste bat dela".

Jon Joseba Agirre Aralarreko kideak *Aldaketa hamasein* esanak: "Euskararen berreskurapena gehiegi maite ez duten intelektual mediatikoei, euskararen aldeko eskaerarik txikienari egundoko egurra ematen diote, eta zapalketa balitz bezala azaldu beren hedapen handiko hedabide demokratikoetan. Euskal Herria lurralde basati (halabeharrez euskaldundua) eta gaztelaniaren aurkako agintarien gidaritzapean balego bezala agertuz".

TALAIAN

Politika antisoziala

Hego Euskal Herriko administrazioen politikak gizartearen aurkakoak dira. Enpresarien interesen alde baino ez dute egiten eta langile eta behartsuenei kalte egiten diete. Horren irmo, eta datuekin, agertu zen sindikatu abertzale garrantzitsuena, ELA. Aldi berean, egoera hori salatzen mobilizazioak iragarri zituen. Urtarrilaren 11n ekin zieten manifestazioei Gasteizko Legebiltzarrean eta otsailaren 15era arte jarraipena izango dute herrietan. Sindikatu abertzaleak salatutakoaren arabera Hegoaldeko administrazio publikoek –autonomietako gobernuak eta foru aldundiek– 1.263 milioi euroko soberakina lortu zuten 2006an. Hala ere, gizarte, osasun, hezkuntza, segurtasun eta laneko osasun gastuei dagokienez, amaierako lekuak betetzen dituzte Europar Batasuneko zerrendan.

Nola uler daiteke hainbesteko soberakina izatea arlo publikoan eta EAEko osasun arloan dagoen gatazka soziorabiala usteltzen lagatzea, hainbesteko prekarietatea eta inbertsio publikoen beharra dagoela kontuan hartuta? Nola uler daiteke hainbesteko soberakina izatea 143.600 ezindu daudenean eta hauetatik %87ak gizarte zerbitzu desegokia jasotzen duenean? Nola ulertu sozietateen eta PFEZren erreformek bilketa publikoa 440 milioi eurotan murriztea, 2007an enpresariak inoiz baino gehiago irabazi dutenean? Erantzuna erraza da: administrazio publikoek enpresari eta errenta ekonomiko handiak dituztenen zerbitzurako politika neoliberalak ezartzen dituzte. Langile eta behartsuenei aldeko politikak inoiz baino premiazkoak dira. Horixe da mugimendu sindikalaren helburua.

Askoz gehiago egin liteke torturaren aurka

A. C. / ARGAZKI PRESS

IGOR PORTU-REN tortura arrastoak Donostia Ospitalera iritsi zirenean zabaldu zen errealitate honi buruzko kapitulu berri hau. Atxiloketatik 17 bat ordura iritsi zen Portu ospitalera eta berarekin atxilotutako Mattin Sarasolak bost egun gehiago jarraitu zuen Guardia Zibilaren eskuetan. Imaginazioak eta esperientziak dena adierazten zuten, epailearen aurreko bere salaketak ere bai.

Tortura kasuen inguruko datu zaparrada uholde bihurtu da Euskal Herrian: ehunka atxiloturen testigantza lazgarriak, ehunka salaketa judizial, dozenaka epai tortura frogatzen dutenak, nazioarteko erakunde salaketak eta gomendioak (Amnesty International, Torturaren Aurreikuspenarako Batzordea, NBEaren aholkuak...), torturazaila gisa zigortutako Guardia Zibil eta polizia indultatuak...

Gura adina argi polizi sotoetako iluntasunean ikusi nahi duenarentzat. Baina datu anabasa, ahanztura eta konplizitatea tratu txarrak babestu edo ezikusiarrena egin gura duenarentzat. Eta Espainiako agintarriengan bi eratako jarrerak ikus daitezke, batzuek argi eta garbi babesten baitute tortura eta beste batzuek, moralki babestu ez arren, ez dute inoiz benetako indarririk izan egoerari aurre egiteko. Hemerotekek aztertuz gero, bi jarrera hauen arrastoak samur topa daitezke Espainiako botereguneetan azken 30 urteetan txandakatu diren bi tradizio politiko handietan, bai eskuintean (PP) eta bai ezkerrean (PSOE).

Espainiako prentsa izan liteke bi jarrera horien isla garbia. GAL aferarekin *El Mundo*-k astindu zuen garai batean Felipe Gonzalez, baina geroa inoiz ez du izan kazetari ikerketa



Donostia Ospitalearen aurrean Igor Porturen torturak salatzen egindako bilkura.

zorrotzik egiteko tortura salaketen inguruan. Igor Porturen kasuan *El País* erakusten ari den jarrera ere esanguratsua da: Porturen txosten medikua eta Barne Ministerioaren arteko azalpenaren artean argi-illunak zirela adierazi zuen hilaren 7an; 8an erabateko sinesgarritasuna eman zien Alfredo Perez Rubalcabaren berbei; eta 14an berriz ere torturen inguruko zalantzak aireratzen dituen artikulu luzea idatzi du bertako kazetari izarretakoa den Jose Luis Barberiak. Besteak beste, erreportajearen emandako datuetan, ETArekin lotutako atxilotuen artean, azken legegaldi honetan 147 tortura salaketa artxibatatu ditu Espainiako justiziariak.

Azken bi urteetan izan dira Espainian tortura eta tratu txarrei mugak jartzeko ekimen batzuk. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak protokolo zehatz batzuk jarri ditu indarrean, Eusko Legebiltzarrak inkomunikazioaren amaiera eskatu du, Baltasar Garzonek eta beste epaile batzuek atxilotuen komisaldegiko egonaldiak kameraz grabatzeko agindu dute; pisuzko zenbait kazetarien artikuluak (*El País*-eko Soledad Gallego-Díaz...) Baina torturak bere basatienean jarraitzen du, besteak beste, Portu, Sarasola edo Lupiañezen kasuak erakusten duten moduan.

Torturaren legez kanpoko erabilera onartzen duenak, berau azalera ez dadin bideak ondo baino hobeto jorratuak ditu Espainian. Onartzen ez duenak ez du Guardia Zibilak ordezkaten duenari aurre egiteko nahiko gogo eta indarririk.

Jarrera onartezinak dira biak, baina Espainian ulergarria izan daiteke Guardia Zibilaren aurrean gordetzearena. Eta Euskal

Herrian? Hori askoz okerrago ulertzen da hemen, besteak beste azken 30 urteetan populazioaren zati handi batek ezagutu —eta askok nozitu— duelako oso gertutik bere kideen jarduera berezia.

Ertzaintzak ere bildu ditu tortura eta tratu txarren salaketak bere baitan eta bere sorreratik Herrizaingon EAJk agindu badu ere, ezin liteke esan EAJ torturarekin ados dagoenik, aurkako bere jarrera argi erakutsi baitu sarritan, zalantzarik ez izateko moduan. Baina, beste kontu bat da, Espainiako segurtasun esparruaren kudeatzaile den neurrian, segurtasun hori kudeatzeko moldeen parte ere badela neurri batean, eta horrek sarritan egoera zail eta kontrajarrian jartzen duela.

Gaur gaurkoz, eta areago biolentzia ziklo berri honetan, Espainian konponbide gaitzeko gaia da torturarena, baina euskal gizartetik eta, bereziki, autonomiaren erakundeetatik askoz presio handiagoa egin gabe maila guztietan, are eta zailagoa izango da. Eusko Jaurlaritzatik, Eusko Legebiltzarretik, diputazioetatik, udaletxeetatik... Askoz gehiago egin liteke, eremu guztietan gainera, kontzientziazioan, kasuen ezagutaratzean, babes humanoan, salaketarenean, judizialean... Askoz gehiago.